



AKTA ZK.: 2/2018

2018ko otsailaren 13an, 12:00etan, Gasteizen elkartu da **Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordearen osoko bilkura**, aldez aurretik deialdia egin baitzen, eta gai-zerrenda hau joratu da:

1. Ebatzi gabe dauden espedienteak ebazteko proposamenak.
2. Jaurlaritzaren Kontseiluak, Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordeko kideen kalte-ordainei buruz, hartutako erabakiaren tramitazioaren egoera.
3. Informazioa bidaltzea Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluari.
4. Informazioa bidaltzea El País egunkariko kazetariari.
5. Galderak eta eskaerak.

BATZORDEBURUA:

Javier Bikandi Irazabal jauna

BATZORDEKIDEAK:

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

Maria Soledad Gutierrez Rodriguez andrea

IDAZKARIA:

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

1.- 2017/000077 espedientearen ebazpen-proposamena

Ondoren, batzordeburuak hitza eman dio proposamena aurkeztu duen kideari; eta aurretik bidali da proposamena batzordekideek azter dezaten. Aztertu ostean, aho batez onetsi da, Batzordearen 24/2017 Ebazpen gisa.

2.- 2017/000083 espedientearen ebazpen-proposamena

Ondoren, batzordeburuak hitza eman dio proposamena aurkeztu duen kideari; eta aurretik bidali da proposamena batzordekideek azter dezaten. Aztertu ostean, aho batez onetsi da, Batzordearen 29/2017 Ebazpen gisa.

3.- 2017/000086 espedientearen ebazpen-proposamena

Ondoren, batzordeburuak hitza eman dio proposamena aurkeztu duen kideari; eta aurretik bidali da proposamena batzordekideek azter dezaten. Aztertu ostean, aho batez onetsi da, Batzordearen 31/2017 Ebazpen gisa.



4.- Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordeko kideen kalte-ordainei buruz Jaurkitzaren Kontseiluak hartutako erabakiaren tramitazioaren egoera

Batzordeburuak azaldu du zein egoeratan dagoen konpentsazio ekonomikoa arautzen duen Gobernu Kontseiluaren erabakiaren tramitazioa; konpentsazio ekonomiko hori, hain zuzen ere, irailaren 13ko 128/2016 Dekretuaren, Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordeari buruzkoaren 2.2. artikuluan aipatzen da. Azkenean, uste dugu onartuko dela otsailaren 20ko Gobernu Kontseiluan, asteartean. Agerian jarri denez, urte bat eta lau hilabeteko atzerapena daramate erabaki hori onesteko, eta horrek esan nahi du orain arte ez direla ordaindu jardueran aritzeko erabilitako denboraren eta dedikazioaren kontzeptuan nahiz aztertutako gaien kopuruarengatik egokituko liratekeen kopuruak.

5.- Informazioa bidaltzea Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluari

Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluari bidalitako estatistikak aztertu dira hark bidalitako datu-orriaren bidez, zehazki, 2017ko ekitaldiari dagokion Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordearen jarduerari buruz.

6.- Informazioa bidaltzea El País egunkariko kazetariari

El País egunkariko kazetariari bidalitako estatistikak aztertu dira, hark eskatutako informazioari buruz, hain zuzen, 2016ko eta 2017ko ekitaldiei dagokien Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordearen jarduerari buruz.

Galderak eta eskaerak.

Ez da eskaerarik egin, ezta galderarik ere. Beraz, batzordeburuak bilera amaitutzat eman du 13:30etan.

Idazkaria

María Soledad Gutiérrez Rodríguez

Kidea

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino

Batzordeburua

Javier Bikandi Irazabal